

Interneteko Bideoen Deskarga

Irakasle batzuk internetetik bideoak nola jaitsi daitezkeen galdetu diguzue. Ziur aski modurik errazena Firefoxentzako dagoen "Download Helper" osagarria erabiltzea izango da.

Download Helper-en Instalaketa

Firefox gure ordenagailuan dugula begiratu behar dugu aurrena. Eskuineko irudia Firefox programaren logotipoa da. Ordenagailuan ez badago, hurrengo helbidetik jaitsi dezakegu:




Gasteleraz: <http://www.mozilla.org/es-ES/firefox/>
Euskaraz: <http://europe.mozilla.org/eu/>

Firefox instalatuta daukagularik, Ireki Firefox eta ondorengo helbidean sartu. "Añadir a Firefox" -en click egin.
<https://addons.mozilla.org/es-ES/firefox/addon/video-downloadhelper/>



Instalazio lehio bat agertuko da, soilik fidagarriak diren osagarriak instalatzeko ohartuaz. "Instalar" sakatu. Instalazioa amaitzen denean, Firefox berrabiarazteko mezu bat agertuko da.



Download Helper Osagarriaren Erabilera

Firefox berrabiaraztean, helbide barraren alboan, ikono berri bat agertuko da. Hiru bola gris dituen ikono bat da. **You Tube** bezalako zerbitzari batean



Firefox bitartez bideo bat ikusteko aukeratzean, download helper-en ikonoa aldatu egingo da.


Ikonoaren bolak urdin, gorri eta hori bihurtuko dira mugitzen diren bitartean. Ikonoaren aldaketa horrek, ikusten ari garen bideoa deskargatu daitekela adierazten du.



Bideoa jaisteko, Download Helper ikonoaren eskuinean dagoen beranzko gezia sakatu eta bideoak dituen kalitate eta formatu ezberdinak azaltzen dituen menu bat agertuko da. Hurrengo adibidean, bideoa mp4 eta flv formatuetan dagoela ikusi dezakegu eta formatu bakoitzak kalitate aukera ezberdinak dituela.



Bideoa deskargatzeko nahi dugun formatu eta kalitatea duen aukeran sakatu behar dugu. Bideoa non gorde nahi dugun aukeratzeko lehio bat agertuko da.



Bideo aukeren gainean mantentzen bagara, Download Helper-ek, bideoa gordetzeaz gain, beste aukera batzuk eskaintzen ditu. Dena dela aukera horiek irakastea ez da fitxa honen helburua.